



2011ko LATORRIZKO GEHITU SARIA

Gehitu, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkartea, Eusko Jaurlaritzak herri-onura aitortua, homofobiaren eta transfobiaren kontra maiatzak 17an ospatzen den eguna dela eta, bere homofobiarengatik nabarmendu den hurrengo pertsona edo entitateari 2011 LATORRIZKO GEHITU SARIA ematea erabaki du:

MARIANO RAJOYri

2000 egun baino gehiago igaro dira Alderdi Popularrak, Mariano Rajoyren lehendakaritzapean, konstituziokontraktotasuneko errekurtsioa aurkeztu zuela sexu bereko pertsonen arteko ezkontza bideratu zuen Kode Zibilaren erreformaren aurka. Erreforma hark gay, lesbiana eta bisexualen aurkako azken legeko diskriminazioa desagerrarazi zuen. Azken sei urte lotsagarri hauetan, Gehituk eta FELGTB Estatuko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioak behin eta berriro eskatu diote Mariano Rajoyri har zitzala beharrezko neurriak, sexu bereko pertsonen arteko maitasunaren duintasunarentzat hain iraingarria den errekurtsio hori behingoz ken dezan Alderdi Popularrak.

Mariano Rajoyk entzungor egin die gizarte zibil antolatutako egin dizkion berdintasun-eskaera horiei. Baina LGTB pertsonen berdintasunarekiko erakutsi duen begirune-eza are handiagoa izan da, eta ez du ukatu nahi izan, behin baino gehiagotan (azkena 2010eko urriaren 30ean), bere alderdia Gobernura iritsiz gero, Ezkontzaren Legea indargabetuko lukeenik, eta adierazpen kontraesankorrek egin ditu, eta Konstituzio Auzitegiak Legearen aldeko epaitza emango balu hura errespetatuko lukeen ala Legea indargabetuko lukeen galdetutakoan.

Bereziki larria den jarrera horri gehitu behar zaio Alderdi Popularrak berak erakunde mailan darabilen LGTBfobia, alderdiko lehendakariak inoiz ezeztatu ez dituen adierazpenekin eta erabaki politikoekin.

Demokrazian berdintasuna oinarri-oinarrizko printzipioa da; ezin da negoziatu eta ezin da egon berdintasun hori moldatu edo mugatu nahiko luketenen joan-etorri ideologikoen mende. Mariano Rajoyk printzipio hori onartzen ez duen artean, buruzagi politiko gisa duen sinesgarritasuna auzitan egongo da.

